



Joxerra Aizpurua

◆ INDUSTRIA INGENIARIA

Euskal Herria 2025ean, estatu gisa pentsatzen hasteko garaia

JOAN DEN abuztuaren 19an François Hollandek, Frantziako presidentea alegia, bere gobernu elkartu zuen 2025. urtearen inguruan zein nolako Frantzia izatea amesten duten eztabaidatzeko. Berri hau oso berri-emaike gutxitan azaldu zen, baina niretzat munduan abuztuan gertatu den berririk ereduagarrienetakoa izan da.

Enpresa ertain eta handietan ohikoa izaten da plangintza estrategikoak prestatzea hurrengo hiruzpalau urtetarako, baina gehienok urteko kudeaketa plangintzekin funtzionatzen dugu. Hauteskundeetan alderdiek hauteskunde-programa planteatzen dutenean euren asmo estrategikoen berri ematen dute, baina horiek gehienguan hautesleek botoari begira egiten dira. Izan ere, gauden krisi egoeran, egunetik egunerako sorpresen zain gaudela, enpresek eta estatuak inoiz baino gutxiago begiratzen diogu biharkoari eta are gutxiago etzikoari.

Frantzian, aldiz, etzikoari begiratzea erabaki dute eta horretarako abuztuak arlo askotan eskaintzen duen tregua garaia aukeratu dute. Baten batek pentsa dezake Frantziak krisia gainditze bidean duenaren sentimendua duela eta beste gauza batzuetan pentsatzen hasteko gai dela.

Iritziak iritzi, nire ustez, Frantziak egindako mugimendu

hau planifikatuta zuten agintariek eta egoerak lagun, une aproposa topatu dute aurtengo abuztuan, ez baita lehen aldia Frantziako Gobernu horrelako burutaziotan sartzen dela.

Eta Euskal Herria 2025ean nolakoa nahi dugun amestu al dezakegu euskaldunok? Euskara, hondakinak, energi iturriak, portuak, aireportuak, enpresak,

*Gauden krisi egoeran,
egunetik egunerako
sorpresen zain
gaudela, enpresek eta
estatuak inoiz baino
gutxiago begiratzen
diogu biharkoari eta
are gutxiago etzikoari*

osasuna, Espainia, Frantzia, Europa, subiranotasuna, haurrak, zaharrak... Gai asko ditugu amesteko.

Ziur naiz Frantziako Estatuen ministroak elkartu direnean militaritzen duten alderdiko karnera alde batera utzi dutela eta barruko izaeraz aritu direla. Guk, euskaldunok, noizko era horretako arikerak? Estatu izan nahi badugu ez dugu aitzakiarik. ■



IRITZIAREN LEIHOA

**BERTSO
BERRIAK**

**Miren
Amuriza Plaza**



Doinua: Gai horrek badu mamia.



**Zer gara gu?
Nor gara gu?**

“Zer gara gu? Nor gara gu?” kantak dinon gisara: pozik hartzen genuenak ehun pezetako paga, gogotsu joan ginenak fakultateetara, gaur Lanbide-ko atean gauden gazte ilara, jolasean jarraitzeko helduegiak jada, ta lanik ez izateko gazteegiak gara. (bis)

Agintari, ez gaitzazu engainatu faborez, esanez diru-laguntzak ito direla zorrez. Juan Carlosek guri kendu ta koltxoipean gordez, Raxoik bere kamaradak ornitu ditu sobrez, Hollandek Siria erasoz babesa eman ordez... Dirua egon badago baina guretzako ez. (bis)

Lausotzen hasia dugu garai zaharren gomuta; lehen etxetik joatea zen bizilege arrunta, gaur egun da gehiengoz ezinezko burruka. Nahiz ta krisialdi hau ez epe motzean buka, bestela ere haizea aurkituko dugu ta, ez gaiten gera eskuak poltsikoan sartuta! (bis) ■